

Azala

**Maidier IANTZI
GOIENETXE**

Lana bukatu, eta haizea hartzera atera naiz. Oraindik nire munduan nagoela, kontrola espaloi izkinan: «Zer dira aurpegian dituzun gorriune horiek? Tratamenduren bat jarraitzen ari zara?». Horrela, bertzerik gabe. Shocka. «Niri gorri jarri zitzaidan gorputz osoa, dermatitis seborreikoa zen. Zein diagnostiko duzu zuk?». Jakin nahi nuke... Baina joaten ari zait, ezta? Aunitz nabari zait? Edozein kasutan, zergatik eman behar diot azalpenik? «Barkatu, baina ez zaitut ezagutu ere egiten...», atera zait. Beroa, bihotza punpaka eta, seguru, aurpegia are gorriago. Bultzada eman dit kaxoian nuen gai bat ekartzeko: azala.

Organorik handiena dugu azala. Kanpotik babesten gaitu, eta bertan inprimatzen diren markek banaketa baten gatazka adierazten ahal digute, baita kontaktu batena ere. Gerta daiteke kontaktu bat desiratzea eta ez izatea, edo nahi ez izan arren inposatzea.

Azal lodia lotsagabea izatearekin lotzen da; azal fina, lotsatia izatearekin. Xilkoa edo zilborra da gure lehenbiziko tatuajea eta hortik aitzinera orezta, orbain eta zimurrek gure azala marrazten segituko dute. Bakoitzak bere istorioa kontatuko du.

Azalaren berezitasuna da agerian dagoela, bereziki aurpegia, baina bertze organo eta gorputz ataletan ere idatzita

gelditzen dira gure ahoak isiltzen dituen hitzak. Argi dago: ongi egoteko gatazkak kanporatu behar ditugu; inori zaplaztekorik eman gabe, ordea. Bertzalde, inoren gorputzari buruzko iruzkinak sobera daudela erranen nuke, baita eskaner baten gisako goitik beherako errebisioak ere.

Badakit hagitz praktika hedatuak direla, baina horretan erortzean ohartzen bagara. behintzat, pauso handi bat ematen dugu. Diotenez, energia txarrek ez eragiteko kapa zuri argi sinboliko bat jantzi dezakegu. Ari naiz josten, pertsonak epaitu gabe, etiketez eta pertsonaiez harago ikusteko entrenatzen naizen bitartean. •

Mahastiak

**Xabier Mikel
ERREKONDO**

Dron bat banintz hori-hori ikusiko nuke Arabako lautada zabala, soroak orbainez josita, ibilgu idor egarriak nola ur antsian. Zur eta lur daude aurten zaindari nekazariak, zerutik hezetan apurrik ere ez, ez urik lur geruzatik gorantz eskean lehertzen diren esku zarratatuentzat. Dagoeneko urratua du ez tarria lurrak, garrasi isilean.

Nekazaria banintz, negar zotina behartuko nuke ene malko-tanta gaziak isurtzeko oraindik horitu gabeko mahatsondoetan... lagunduko balie fruitu gozua ematen. Baina begiak siku daude, egin beharreko negarrak eginak, eta

ukabil zartatuak baino ez dira geratzen amorrazioaren lekuko.

Nekazaria banintz, ene begietatik eta ukabilak eutsi sardetik botere guneetara zuzenduko nituzke minak eta ezinak, ki-deekin nahiko sarde elkartu eta gober-nukideak estutuko behar beste neurri hartu arte. Diru-laguntzak une batez arnas hartzeko limosna pozoitsua baino ez baitira.

Belaunak lurrean hondoratuta zeruari erreguka malkotan ematen du nekazariak. Ikasi dugu euria egitea ez dela miraria, ez dela zorte kontua, ez urte garaiari dagokiolako jasoko dugun oparia, zaindu beharreko altxorrik preziatuena

baizik. Urrea, benetako urrea ez baita horia, zuria baizik.

Nafarroan bezala Araban, zereala galduta dago eta horrela jarraitzen badu(gu) berandu baino lehen mahastiak ere galdu egingen dira. Eta orduan ez Jaurlearitzaren ez beste administrazioen zurikeriazko diru-laguntzek ez dute konponduko, ez malko jada kaltzifikatuek kontsolatuko.

Nire izanetik nago behar-beharrezkoa dugula elkarbizitza ardoarekin blaitzea sagardoarekin nola. Arrazoi bat gehiago lurra eta mahastiak zaindu ditzagun, gure izana izan ez dadin iragan huts, geroa izan ez dadin idorte eta hauts. •